# Bestelako Xedapenak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**5111**

507/2009 DEKRETUA, irailaren 8koa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco zuzenbide pribatuko ente publikoko zuzendaritza-taldekideen zerrenda onartzeko dena.

Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzeko denak 3.1 artikuluan ezartzen duenez, «Jaurlaritzaren Kontseiluak, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako enteak atxikita dituzten sailetako titularren proposamenez, ente horietako zuzendaritza-taldekideen zerrenda onartuko du dekretu bidez».

Halaber, artikulu horrek ezartzen du proposamen horiek erabaki bidez hartuko dituztela, urtero, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako enteetako organo artezkariek edo administrazio kontseiluek; eta, erabakietan bertan agertuko direla zuzendaritza-taldekidetzat zeintzuk jotzen diren zehazten dituzten zerrendak.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, sortua da Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia. Zuzenbide pribatuko ente publikoa da eta unibertsitateen gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago; eta, indarreko legeriaren arabera dagozkion eginkizunak bete ahal izateko, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa ditu, baita berezko ondarea ere.

2006ko uztailaren 10ean argitaratua da 138/2006 Dekretua, ekainaren 27koa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren Estatutuak onartzen dituena. Lege horretako 7. artikuluan ezartzen denez, administrazio-kontseilua eta zuzendaria dira agentziaren gobernu-organoak eta administrazio-kontseiluak du zuzendaria izendatzeko eta kargutik kentzeko eskumena.

Horiek horrela izanik; eta ekainaren 30eko 7/1981 Legeak, Jaurlaritzarenak, 26.3 artikuluan ezarritakoarekin bat; eta otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**5111**

DECRETO 507/2009, de 8 de septiembre, por el que se aprueba la relación de los cargos directivos del ente público de derecho privado Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

El artículo 3.1 del Decreto 130/1999, de 23 de febrero, por el que se regula el estatuto personal de los directivos de los Entes Públicos de Derecho Privado y de las Sociedades Públicas, prescribe que «El Consejo de Gobierno, a propuesta de los titulares de los Departamentos a los que se encuentren adscritos Entes Públicos de Derecho Privado o Sociedades Públicas, aprobará mediante Decreto la relación de los directivos de los mismos».

Asimismo, dicho artículo establece que las citadas propuestas se elaborarán a partir de los acuerdos que los órganos rectores o Consejos de Administración de cada Ente Público de Derecho Privado o Sociedad Pública adopten con carácter anual, en los que se identificarán los cargos o puestos que se califiquen como directivos a los efectos de lo dispuesto en el citado Decreto.

El artículo 79 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, crea Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco como ente público de derecho privado adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades, con personalidad jurídica, plena capacidad de obrar y patrimonio propio para el ejercicio de las funciones que le son atribuidas por la normativa vigente.

Con fecha 10 de julio de 2006 se publica el Decreto 138/2006, de 27 de junio, por el que se aprueban los estatutos de Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco. En su artículo 7 se establece que sus órganos de gobierno son el Consejo de Administración y la Directora o Director, siendo este Consejo de Administración el competente para proceder al nombramiento y cese de la Directora o Director de la Agencia.

En su virtud, y de conformidad con o establecido en el artículo 26.3 de la Ley 7/1981, de 30 de Gobierno, así como el artículo 3.1 del Decreto 130/1999, de 23 de febrero, por el que se regula el estatuto de personal de los directivos de los Entes Públicos de Derecho Privado

arautzeko denak 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko irailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak ezarritako ondorioetarako, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendaritza-taldekideen zerrenda onartzea. Hauek dira zuzendaritza-taldekideak:

Ente publikoko zuzendaria.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko irailaren 8an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

y de las Sociedades Públicas, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, y previa la oportuna deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el 8 de septiembre de 2009,

DISPONGO:

***Artículo único.–*** Aprobar la relación de directivos del ente público de derecho privado Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, a los efectos previstos en el Decreto 130/1999, de 23 de febrero, que contiene los cargos siguientes:

Director o Directora del Ente Público.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de septiembre de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.